
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



EUSKADIKO EGOERA SOZIOLABORALA

2020KO EMAITZEN AURRERAPENA

2020ko Emaizen Aurrerapen honekin, Lan Harremanen Kontseiluak egoera sozioraboralaren lehen ikuspegia eman nahi du, eta negoziazio kolektiboak joan den ekitaldian zer bilakaera izan zuen eta 2021. urtearen hasieran abiapuntuko egoera zein zen azaldu. Halaber, gatazkei eta enplegu-erregulazioko espedientei buruzko lehen aurrerapen bat aurkeztuko dugu. Gai horiek eta beste batzuk berriro aztertuko ditugu, sakonago, urteko txostenean.

2021eko otsaila

I. TESTUINGURU EKONOMIKOA	4
II. AFILIAZIOAREN, KONTRATAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA.....	5
III. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, LAN-GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK.....	15
IV. ONDORIOAK.....	43

I. TESTUINGURU EKONOMIKOA


2019an, euskal ekonomia, zenbait urtean % 3 inguruko hazkundera izan ondoren, nolabaiteko moteltzearen zantzuak erakusten ari zen. Dena den, COVID-19aren ondorioz mundu osoan sortutako krisi ekonomiko larriak 2020ko BPGd-aren beherakada % 9,5ekoa izatea eragin du EAEn, Hiru Hilean Behingo Kontuen aurrerapenaren arabera. Gure historia hurbilean inoiz izan ez dugun beherakada izan zen, 2009an erregistratutakoa (-% 4,1) baino askoz handiagoa.

Jardueraren beherakada horrek inpaktu handia izan zuen lan-merkatuan; izan ere, EAEn 2020an sinatutako kontratuen kopurua -% 30,2 txikitu zen aurreko urtearekin alderatuta, eta Gizarte Segurantzako afiliatuenak, -% 2,2.

Malgutasunerako eta produkzio-sareari laguntzeko neurriei esker –horien artean, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak (ABEEEak)–, lanpostuen galera mugatu zen, eta jarduerara itzultzea ahalbidetu zitzaizen enpresei.

Berragertzeak eta txertaketa-erritmoari buruzko ziurgabetasunak direla eta, zaila da aurreratzen noiz hasiko den susperraldia eta zenbaterainokoa izango den. Nolanahi ere, aurreikuspen gehienek arabera, susperraldia bigarren seihilekoan has daiteke, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak uste du 2021erako BPGd-a % 8,6 haziko dela.

1. GRAFIKOA.
EAE-KO BPGd-AREN ALDAKUNTZA




(*) Aurrerapena. (**) Estimazioa.

Iturria: Eustat.

II. AFILIAZIOAREN, KONTRATAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

II.1. JAKINARAZITAKO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA

EAEn 2020an jakinarazitako kontratuen datuek erakusten dutenez, osasun-krisiak inpaktu handia izan zuen lan-merkatuan.



Urtarrilean eta otsailean, pandemiak eragindako murrizketak hasi aurretik, EAEn jakinarazitako kontratuen bilakaera pixka bat positiboa izan zen: % 0,4ko igoera txikia izan zen bi hilabete horietako metatuan, 2019ko datuarekin alderatuta.

Hala ere, birusaren hedapenak bat-bateko joera-aldaketa eragin zuen martxoan, eta jakinarazitako kontratazioak urtetik urterako -% 25,3ko atzerakada izan zuen. Hurrengo bi hiletan urteko beherakadarik handienak izan ziren (-% 65,3koa apirilean eta -% 62,8koa maiatzean).

Ekainetik aurrera, kontratazioa hobera egiten hasi zen, baina, edonola ere, aurreko urteko balioetatik oso urrun zegoen. Hala, pandemia hasi zenetik, urtetik urterako datuetan izandako atzerakadarik txikiena izan zuen kontratazioak abenduan, nahiz eta hilabete hartan, 2019ko abenduarekin alderatuta, -% 21,2 egin zuen behera.

2020an, oro har, sinatutako kontratuen kopurua % 30,2 txikitu zen; datu absolutuetan, aurreko urtean baino 304.820 kontratu gutxiago sinatu ziren. Izan ere, 2019an, 1.008.175 kontratu formalizatu ziren; hau da, azken urteetako erregistrorik handiena lortu zen.

3. GRAFIKOA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK. URTEKO GUZTIZKOA ETA AURREKO URTEAREKIKO ALDAKUNTZA



Iturria: EEZP.

Aurreko urteetan bezala, 2020an ere sinatutako 10 kontratutik bederatzi aldi baterakoak izan ziren, eta kontratazioaren beherakadak antzeko eragina izan zuen, bai aldi baterako kontratuetan (-% 30,3), bai kontratu mugagabeetan (-% 29,2).

1. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA KONTRATU-MOTAREN ARABERA

	2019	2019KO BANAKETA	2020	2020KO BANAKETA	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	1.008.175	% 100,0	703.355	% 100,0	-% 30,2
Mugagabeak	83.931	% 8,3	59.448	% 8,5	-% 29,2
Aldi baterakoak	924.244	% 91,7	643.907	% 91,5	-% 30,3

Iturria: EEZP.

Jarduera-sektoreen arabera, beherakada handiagoa izan zen zerbitzu-sektorean (-% 31,8koa) eta industrian (-% 27,2koa). Nekazaritzan eta eraikuntzan, berriz, beherakadak txikiagoak izan ziren (hurrenez hurren, -% 11,5koa eta -% 17,3koa).

2. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUEN KOPURUA JARDUERA-SEKTOREAREN ARABERA

	2019	2020KO I. SEIHILEKOA	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
JAKINARAZITAKO KONTRATUAK	1.008.175	703.355	-% 30,2
Nekazaritza	17.618	15.598	-% 11,5
Industria	150.691	109.719	-% 27,2
Eraikuntza	34.049	28.146	-% 17,3
Zerbitzuak	805.817	549.842	-% 31,8

Iturria: EEZP.

Kontratazioaren beherakada orokorra izan zen jarduera-sektore eta -azpisektore guztietan, erauzketa-industrietan izan ezik (+% 0,9). Aitzitik, ostalaritza izan zen jarduerarik kaltetuena, 2019an baino 102.162 kontratu gutxiago formalizatu baitziren 2020an (-% 60,6). Horrenbestez, 2020an galdutako hiru kontratutik bat (% 33,5) ostalaritzakoa izan zen.

Jaitsiera horren ostean, garrantziaren arabera, sektore hauetan gertatutakoak dira aipatzekoak: manufaktura-industria (2020an, 40.052 kontratu galdu ziren), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (30.214 kontratu gutxiago), eta arte-, jolas- eta entretenimendu-jarduerak (25.626 kontratu galdu ziren).

3. TAULA.
EAE-N JAKINARAZITAKO KONTRATUAK LANALDI-MOTAREN ARABERA

	2019	2020	URTETIK URTERAKO ALDAKUNTZA
Jakinarazitako kontratuak	1.008.175	703.355	-30,2%
Lanaldi osokoak guztira	591.410	428.315	-27,6%
Lanaldi partzialekoak guztira	404.875	268.043	-33,8%
Aldizkako finkoak guztira	4.333	2.428	-44,0%
Praktikak eta prestakuntza	7.557	4.569	-39,5%

Iturria: EEZP.

Lanaldi-motaren arabera, beherakada portzentajezko sei puntu handiagoa izan zen lanaldi partzialeko kontratuetan (-% 33,8koa) lanaldi osokoetan baino (-% 27,6koa). Edonola ere, portzentajezko terminoetan, beherakadarik handienak aldizkako kontratu finkoetan eta praktika- eta prestakuntza-kontratuetan izan ziren, % 44,0 eta % 39,5 gutxitu baitziren, hurrenez hurren. Hala ere, bi kontratu-modalitate horiek kontratazio osoaren % 1 baino ez ziren izan.

Kontratazioaren beherakada apur bat handiagoa izan zen emakumeen kasuan (-% 31,4) gizonen kasuan baino (-% 29,1), eta, aurreko ekitaldietan bezala, emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratu gehienak (% 66,1); lanaldi osoko kontratuetan, berriz, gizonen proportzioa nabarmen handiagoa izan zen (% 61).


4. TAULA.
EAE. ALDI BATERAKO KONTRATUAK IRAUPENAREN ARABERA

	7 EGUNEKO EDO TXIKIAGO	SEGUN ETA HILABETE ARTEKO	HILABETE ETA 3HILABETE ARTEKO	3HILABETE ETA 6HILABETE ARTEKO	6HILABETE ETA URTEBETE ARTEKO	URTE 1ETIK GORAKO	ZEHATZU GABEA	GUZTIRA
2019	348.213	117.662	79.166	60.708	24.127	3.362	291.006	924.244
2020	207.198	98.583	61.752	38.742	15.827	3.222	218.583	643.907
Aldea	-141.015	-19.079	-17.414	-21.966	-8.300	-140	-72.423	-280.337
Aldakuntza ren %-a	-% 40,5	-% 16,2	-% 22,0	-% 36,2	-% 34,4	-% 4,2	-% 24,9	-% 30,3

Iturria: EEZP.

Aldi baterako kontratuak iraupenaren arabera aztertuta ikusten denez, urtetik urterako beherakada orokorra gertatu zen segmentu guztietan, baina 7 eguneko edo gutxiagoko iraupena zutenek –hirugarren sektorean asko erabiltzen dira– izan zuten beherakadarik handiena, -% 40,5 gutxitu baitziren. Hiru eta sei hilabete bitarteko kontratuak eta sei hilabete eta urtebete bitartekoak ere batezbestekoa baino beherakada handiagoak izan zituzten (-% 36,2 eta -% 34,4, hurrenez hurren); urtebetetik gorako kontratuak, berriz, beherakadarik txikiena izan zuten (-% 4,2).

4. GRAFIKOA.
EAE-KO ERROTazioAREN BILAKAERA



Iturria: EEZP.

Sinatutako kontratuen kopuruak behera egin zuenez, eta iraupen laburragoko aldi baterako kontratuen kopurua nabarmen txikitu zenez, errotazioak (hau da,

pertsona bakoitzeko sinatutako kontratuen kopuruak) behera egin zuen: 2019an, 3,11 kontratu sinatu ziren pertsona bakoitzeko, eta 2020an, berriz, 2,78.

Ondorio gisa, esan behar da pandemiak ekarritako krisiak beherakada handia eragin zuela martxoaz geroztik sinatutako kontratuen kopuruan. Beherakada hori handiagoa izan zen zerbitzuetan eta industrian, eta apur bat handiagoa, aldi baterako kontratuetan, lanaldi partzialeko kontratuetan eta iraupen laburragoko kontratuetan. Dena den, kontratazioaren atzerakada moteldu egin zen ekainetik aurrera.

II.2. GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako EAEko afiliatuen kopurua (hileko batezbestekoa) -% 2,2 txikitu zen 2020ko abenduan, urtetik urterako datuetan. Horrenbestez, 21.460 afiliatu galdu ziren 2019ko abenduarekin alderatuta, eta, 2020. urtearen amaieran, 959.132 afiliatu zeuden Gizarte Segurantzaren.


Afiliatuen galera ertain horren arrazoietakoa bat, jakinarazitako kontratazioaren beherakadekin alderatuz gero, ABEEE direlako enaldura handia izan zen; izan ere, horri esker, espediente horiek eragindako langileek Gizarte Segurantzaren jarraitu zuten alta emanda.

Afiliazioaren beherakada handiagoa izan zen gizonen artean (-% 2,4koa) emakumeen artean baino (-% 1,9koa). Kopuru absolutuetan, 12.193 eta 8.779 afiliazio gutxiago zeuden, hurrenez hurren, gizonen eta emakumeen artean, 2019ko abenduarekin alderatuta. Zifren garrantzia gorabehera, lehen seihilekoaren amaieran erregistratutakoa baino txikiagoa izan da beherakada, orduan 19.719 gizon eta 10.804 emakume gutxiago baitzeuden afiliatuta (-% 3,8 eta -% 2,4, hurrenez hurren).

Atzerakada horren arrazoi nagusia Erregimen Orokorrean 19.286 afiliatu galdu izana da 2019ko abenduarekin alderatuta (-% 2,5). Langile Autonomoen Araubide Bereziko afiliazioak aurreko lau urteetako beheranzko joerari eutsi zion, eta -% 0,7 txikitu zen 2020an; hau da, urtetik urterako terminoetan, 2019ko abenduan baino bi hamarren gutxiago.

Bestalde, langile atzeritarren taldean, 716 afiliatu gutxiago zeuden 2019ko abenduarekin alderatuta (-% 1).


5. GRAFIKOA.
EAE-N GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO PERTSONEN
KOPURUAREN BILAKAERA (HILABETE BAKOITZEKO BATEZBESTEKOAK)



Iturria: Gizarte Segurantzak.

Jarraian, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko afiliatuen osaera aztertuko dugu, lanaldi- eta kontratu-motaren arabera, honako hauek kenduta: Nekazaritzako Sistema Berezikoak, Etxeko Langileen Sistema Berezikoak, zaintzaile ez-profesionalak eta kontraturik gabeko afiliatuak (funtzionarioak).

6. GRAFIKOA.
ERREGIMEN OROKORREKO AFILAZIOA LANALDI-MOTAREN ARABERA. EAE
(URTEROKO DATUAK, 12-31KOAK)*



(*) Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta Bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo hutsak).

Iturria: Gizarte Segurantzak.


a) Lanaldia

Lanaldi-motaren arabera azterketak¹ (6. grafikoa) erakusten duenez, 2020ko ekitaldiaren amaieran lanaldi osoko kontratua zuten Araubide Orokorreko afiliatuen kopurua gutxiago txikitu zela lanaldi partzialeko kontratua zuten afiliatuena baino (hurrenez hurren, -% 0,2 eta -% 7,6); beraz, lehenengoen proportzioa % 75,5eraino handitu zen, eta lanaldi partzialeko kontratua zuten pertsonak, berriz, % 21,6 ziren.

b) Kontratua

7. grafikoa, afiliatuen banaketa kontratu-motaren arabera ageri da. 2020ko abenduaren 31n, kontratu mugagabeak zituzten Araubide Orokorreko afiliatuen kopurua aurreko urtekoa baino % 0,4 handiagoa izan zen, eta aldi baterako kontratuak zituzten pertsonen afiliazioa % 7 txikitu zen (14.787 pertsona gutxiago).

7. GRAFIKOA.
ERREGIMEN OROKORREKO AFILIAZIOA, KONTRATU-MOTAREN ARABERA. EAE
(URTEROKO DATUAK, 12-31KOAK)*



(*) Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta Bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Iturria: Gizarte Segurantza.


¹ Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta Bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak) kontuan hartu gabe.

Alde batetik, beherakada egon zen kontratazioetan, eta, beste batetik, kontratu mugagabeak zituzten langile asko aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente baten babespean zeuden; hori izan daiteke aldi baterako kontratua zuten langileen kopurua nabarmen txikitu izanaren arrazoia². Aurreko krisietan bezala, aldi baterako kontratua zuten pertsonak galdu zuten lehenbizi lanpostua.

Horrenbestez, handitu egin zen kontratu mugagabea zuten afiliatuen proportzioa, 2020ko ekainean Araubide Orokorreko afiliazioaren % 68,2 baitzen.

II.3. ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA ETA LANGABEZIA-TASA

Euskadiko enplegu-bulegoetan izena emana zuten langabeen kopurua nabarmen handitu zen 2020ko martxotik aurrera, nahiz eta kurbak beheranzko joera izan irailetik aurrera.




2020ko abenduan, enplegu-bulegoetan 15.078 langabe gehiago zeuden izena emanda aurreko urteko abenduan baino (+% 13,2); beraz, 129.240 langabe zeuden, guztira.

² Kanpoan utzi dira Nekazaritzako Sistema Berezian eta Etxeko Langileen Sistema Berezian afiliatutakoak eta Bestelakoak (funtzionarioak, zaintzaile ez-profesionalak eta akatsak edo ez-egiteak).

Igoera zertxobait handiagoa izan zen gizonen kasuan (+% 15,1) emakumeen kasuan baino (+% 11,7); hala ere, urtea amaitzean, izena emanda zeuden langabeen % 54,4 emakumeak ziren, eta % 45,6, gizonak. Gainera, pertsona horien ia erdiak (% 49,4) 45 urtetik gorakoak ziren.

Langabezia-tasari dagokionez, Eustaten Biztanleriaren Jardueraren Araberako Inkestako (BJA) datuek jakitera ematen dutenaren arabera, 2020ko laugarren hiruhilekoan langabezia-tasa % 10etik gorakoa zen; % 11,2koa, hain zuzen, 2019ko laugarren hiruhilekoko % 9,5aren aldean. Sexuen arabera, gizonen langabezia-tasa portzentajezko 2,7 puntu igo zen, eta % 11,5ean kokatu zen; emakumeena, berriz, bost hamarren igo zen, % 10,8raino.



Bestalde, 2020ko laugarren hiruhilekoan, biztanle landunen kopuruak behera egin zuen: 18.600 gutxiago izan ziren 2019ko laugarren hiruhilekoan baino. Langabeen kopuruak, beraz, gora egin zuen: 17.400 gehiago.

Beraz, lana galdu zuten langile guztiak ez ziren biztanleria langabeen sartu; 1.200 pertsona biztanleria ez-aktiboan sartu ziren, bai ez zutelako lanik bilatzen edo ez zutelako lana bilatzeko gestio aktiborik egiten, bai erretiroa hartu zutelako.

Ekonomiaren sektore pribatuko langileen kopuruak behera egin zuen (32.200 langile gutxiago), eta enplegatu publikoenak, berriz, gora (13.500 gehiago). Beraz, enpleguaren doikuntza ekonomiaren sektore pribatuan gertatu zen, BJAk emandako informazioaren arabera.

Biztanleria landunean gizonen kopuruaren beherakada handiagoa izan zen emakumeena baino, eta gorakada handiagoa, langabeen artean; hurrenez hurren, 15.300 gizon eta 3.200 emakume gutxiago zeuden lanean, eta 14.800 gizon eta 2.600 emakume gehiago, modu aktiboan lan bila.

Azkenik, aipatu behar da Eustaten batez besteko datuen arabera 2020ko laugarren hiruhilekoan ABEEE batean³ zeuden 34.400 pertsona biztanleria landunaren barruan zeudela. ABEEE-en estaldurari esker enpleguari eutsi zioten pertsonak ziren, eta, beraz, estatistikoki, ez zeuden biztanleria langabearen barruan.

5. TAULA.
BIZTANLERIA LANDUNA, LANGABEA ETA EZ-AKTIBOA

	16 urteko eta gehiagoko biztanleak	Biztanle aktiboak	Biztanle landunak	Biztanle langabeak	Biztanle ez- aktiboak
2020ko IV. hiruhilekoa	1.868.700	1.047.400	930.500	116.900	821.300
2019ko IV. hiruhilekoa	1.857.800	1.048.600	949.100	99.500	809.200
Aldakuntza	+10.900	-1.200	-18.600	+17.400	+12.100

Iturria: Eustat (BJA).

³ Aurrerago, txosten honetan, 2020an enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean egon diren enpresen eta pertsonen bilakaera aztertuko da.

III. III. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA, LAN-GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

III.1. SARRERA

Atariko txosten honetan aurkezten den emaitza-aurrerapena Euskadiko negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko gure datuetan oinarrituta egin da.

Egitura hori, enpresa eta lantoki guztien –eta, beraz, langile guztien– eta EAEn aplikatzen diren hitzarmen kolektiboen aniztasunaren arteko loturaren ispilu, halaber, Kontseiluak orain arte bi urtean behin egiten zuen azterlan batean oinarritzen da.

Zehatz-mehatz, erabilitako datuak 2018ko azterlanekoak dira. Horrenbestez eta, negoziazio dinamiko baten bilakaera aztertzeko, kontraste-elementu gisa biztanleria estatiko batekin lan egitean, desberdintasun kuantitatibo batzuk sor daitezke, baina horiek ez dituzte ondorio nagusiak aldatzen, ez eta, are gutxiago, gure negoziazio kolektiboan hautematen diren funtsezko joerak ere.

Bestalde, hitzarmen kolektiboak hiru kategoriatan sailkatzen jarraitzen dugu: indarrean, luzatuta edo iraungita.

Lan-legearen azken erreformaz (3/2012 Legea) geroztik, indarrean dauden hitzarmenen (eguneratuak) eta aurreraeragin-egoeran dauden hitzarmenen (beraz, berritzeko daudenak) arteko ohiko banaketaz gain, hirugarren kasu bat gehitu genuen: hitzarmen iraungiak, epe barruan ez berritzeagatik indarrean egoteari utzi diotenak. Hori izan zen, dakigunez, Langileen Estatutuan 2012an sartutako berrikuntzarik esanguratsuenetakoa bat (LEaren 86.3. artikulua).

Iraungitako hitzarmenei dagokienez, ezin da inola ere ondorioztatu behin betiko utzitako eremuak zirenik, tradizionalki negoziazio kolektiboak estalita egon arren unean-unean hitzarmenik gabe geratu zirela baizik, euren hitzarmena ez zelako berritu, eta goragoko mailako beste hitzarmen bat ez zegoelako.

Hala ere, hitzarmen bat bertan behera geratu ondoren goragoko mailako hitzarmen bat zegoela egiaztatu dugunean, goragoko eremuko hitzarmen bati egotzi dizkiogu langile horiek. Bestalde, hitzarmenak berrituz gero, langileak euren hitzarmenera itzul daitezke.

Hori da, beraz, hitzarmen iraungien multzo hori eta inoiz aplikazio-hitzarmenik izan ez duten lanbide-jarduerako eremuak bereizten dituen; horiek dira gure ustez negoziazio kolektiboaren estalduratik kanpo dauden bakarrak.

Arestian azaldutako guztia kontuan hartuta, euren lan-baldintzak EAEko negozioak kolektiboko akordioen bidez ezar zitzaketen langileak ia 604.984 ziren. Euren hitzarmenak indarrean, luzatuta edo iraungita egon zitezkeen. Horixe da atal honetan langiletzat hartzen dugun kolektiboa.

Kolektibo horretan ez dira sartzen hitzarmen bidez inoiz arautu ez diren jardueretan lan egiten zuten soldatapekoak. Jarduera horiek, askotan, zerbitzu-sektorekoak dira, eta 55.000 pertsona inguruk jarduten zuten haietan. Pertsona horietatik, etxeko langileen kolektiboa guztizkoaren % 50 inguru zen.


III.2. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN DINAMIKA 2020AN

a) 2020ko emaitza orokorra

2020. urtearen amaieran, langileen % 55,4k eguneratuta zuen hitzarmena (erabateko indarraldian), % 34,8k luzapen-egoeran zuen, eta, azkenik, langileen % 9,8k, iraungita; azken urteotako ehunekorik txikiena da hori.


Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoaren hitzarmena berritzeko lortutako akordioari esker –iraungita zegoen, eta horrek 31.000 langileri baino gehiagori eragiten zien–, ekitaldia amaitzean, hitzarmenak iraungita zituzten eta estaldurarik gabe zeuden langileen ehunekoa % 10etik beherakoa zen.

COVID-19a agertu ondoren, negozioazio kolektiboaren aurrerapen-erritmoa moteldu egin zen. Dena den, Gipuzkoako eta Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren sektore-hitzarmenetan lortutako akordioak –guztira 70.000 pertsonari baino gehiagori ematen diete babesa– erabakigarriak izan ziren ekitaldia amaitzean 335.122 langilek (% 55,4) hitzarmenak eguneratuta izan zituzten.




Sexuaren araberako banaketari dagokionez, bi hitzarmen horietan lortutako akordioen ondorioz –langileen ia % 83 gizonak ziren–, 2020. urtearen amaieran hitzarmenak indarrean zituzten gizonen proportzioa (% 62,1) nabarmen handiagoa zen emakumeena baino (% 47,0).

11. GRAFIKOA.
2020KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N



12. GRAFIKOA.
EAE-KO LANGILEEN EHUNEKOAK, SEXUAREN ETA HITZARMENAREN
INDARRALDIAREN ARABERA
(2020-12-31KO DATUAK)



b) Abiapuntuko egoera

Urtearen hasieran, langileen % 37,3k hitzarmen eguneratua zuen; % 34,2 izan ziren 2019aren hasieran, eta % 22,5, 2018aren hasieran.

2020an, 193 hitzarmen erregistratu ziren; hain zuzen, 109.648 langileren lan-baldintzak berritu ziren. EAEn erregistratutako akordioen kopurua handiagoa izan zen (133 hitzarmen: hiru sektore-hitzarmen eta 130 enpresa-hitzarmen) EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenena baino (60 hitzarmen erregistratu ziren 2020an). Orobat, akordio horiek estalitako langileak gehiago izan ziren EAEn egindako negoziazioan (85.543 pertsona) EAEn eragina duten estatu-mailakoen negoziazioan baino (24.105 pertsona).

6. taulan, 2020an zehar erregistratutako hitzarmenen kopurua ageri da, baita hitzarmen horien eraginpeko langileen kopurua ere.

6. TAULA.
2020AN ERREGISTRATU ZIREN ETA EAE-N ERAGINA DUTEN HITZARMEN
KOLEKTIBOAK

	ENPRESA		SEKTOREA		GUZTIRA	
	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.	HITZ.- KOP.	LANG.- KOP.
GUZTIRA (1+2)	171	22.616	22	87.032	193	109.648
1. EAEn erregistratuak	130	12.275	3	73.268	133	85.543
Araba	31	2.444	0	0	31	2.444
Bizkaia	58	4.254	2	41.961	60	46.215
Gipuzkoa	39	5.364	1	31.307	40	36.671
Lurralde artekoak	2	213	0	0	2	213
2. Estatu-mailakoak	41	10.341	19	13.764	60	24.105

Hortaz, 2020an, langileen % 18,1ek berritu zuen bere hitzarmena. 2019an, langileen % 17,4k berritu zuen, eta 2018an, % 24,8k.

c) EAEko negoziazio kolektiboaren egoera orokorra, 2020. urtea amaitzean

Laburpen gisa, 2020/12/31n negoziazio kolektiboa zer egoeratan zegoen azaltzen du 7. taulak. Hitzarmen-kopurua eta hitzarmenek babestutako langileen kopurua ageri dira, lurralde-eremuaren arabera, eta hitzarmenak egoera (indarrean, luzatuta edo iraungita) kontuan hartuta daude sailkatuta.

7. TAULA.
HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA HAIEN BABESEKO LANGILEAK
2020/12/31N, EGOERAREN ARABERA

	INDARREAN		LUZATUTA		IRAUNGITA*		GUZTIRA	
	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.
GUZTIRA (1+2)	659	335.122	681	210.619	34	59.243	1.374	604.984
1. EAEn erregistratutakoak	463	224.792	526	155.830	29	58.215	1.018	438.837
Araba	104	26.673	86	19.511	4	16.233	194	62.417
Bizkaia	215	124.923	240	55.350	13	15.503	468	195.776
Gipuzkoa	136	65.211	167	45.671	12	26.479	315	137.361
Lurralde artekoak	8	7.985	33	35.298	0	0	41	43.283
2. Estatu-mailakoak	196	110.330	155	54.789	5	1.028	356	166.147

*Hitzarmena iraungita duten eta goragoko eremuko hitzarmenik ez duten langileak.

d) Zenbait ohar aipagarri

Negoiazio kolektiboko gure eremuak berreskuratzeko joera positiboa izan da aurreko urteetan, eta joera hori argi eta garbi sendotu zen 2020an; izan ere, EAEn negoziatutako eta indarrean zeuden hitzarmenek babestutako langileen ehunekoa nabarmen handitu zen.

Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoan lortutako akordioaren ondorioz, asko txikitu zen hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa. Horri esker, eta Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren 2020ko hitzarmena erregistratu zenez, hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa % 55,4ra igo zen.

Araban, hitzarmena iraungita duten langileen ehuneko handia ez da ia aldatu 2019az geroztik; neurri handi batean, industria siderometalurgikoan sektore-hitzarmenik ez dagoelako.

Aipatu behar da, 2020ko datu onak gorabehera, eta hitzarmenak iraungita zituzten langileen kopurua nabarmen txikitu zen arren, ia 60.000 pertsonak artean ez zutela euren hitzarmena berreskuratu, eta ez zutela babesten zituen goragoko eremuko hitzarmenik. Kasu askotan, egoera hori ez da aspalditik aldatu; zenbait kasutan 2013. urtetik. Iraungita zeuden hitzarmenen artean, aipatzekoak dira Arabako Industria Siderometalurgikoarena, Bizkaiko Bulegoena eta Gipuzkoako Ostalaritzarena.

III.3. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA, LURRALDE-EREMUAREN ARABERA

13. grafikoan ikus dezakegunez, 2020an negoziazio kolektiboak ez du bilakaera bera izan lurralde-eremu guztietan.

Negoiazio kolektiboa askoz dinamikoagoa izan zen Bizkaian negoziatutako hitzarmenetan, EAEn eragina duten estatu-mailakoetan eta, batez ere, Gipuzkoako lurralde historikoan negoziatutakoetan.

Araban, ekitaldiaren amaieran, biztanleria landunaren % 42,7 zegoen indarreko hitzarmen kolektibo baten babespean; ehuneko hori 2019ko abendukoa (% 58,2) baino nabarmen txikiagoa izan zen. Eremu horretan ez zen sektore-hitzarmenik erregistratu; bestalde, 31 enpresa-hitzarmen sinatu eta erregistratu ziren 2020an (ia 2.500 langileri ematen zieten estaldura).


Bizkaiari dagokionez, urtearen amaieran, langileen % 63,8k zuen bere hitzarmena eguneratuta, batik bat Industria Siderometalurgikoaren hitzarmena erregistratu izanari esker; ehuneko hori nabarmen handiagoa zen 2019aren amaierakoa (% 50,2) baino. Oro har, Bizkaian, 2020an, 58 enpresa-hitzarmen erregistratu ziren (4.254 langile babesten zituztenak), eta bi sektore-hitzarmen (ia 42.000 pertsonari estaldura ematen zietenak).

Azkenik, Gipuzkoan, urtearen hasierako % 20,8 portzentajeazko 26 puntu baino apur bat gehiago handitu zen, Industria Siderometalurgikoan lortutako akordioari esker, gehienbat; urtearen amaieran, soldatapekoen % 47,5ek zuen bere hitzarmena indarrean, 2019. urtearen amaieran (% 28) baino askoz gehiagok. Halaber, akordio horri esker, hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa erdira jaitsi zen: urtearen hasieran, % 42,6 ziren, eta ekitaldia amaitzean, berriz, % 19,3.

Lurralde arteko negoziazioari dagokionez, arlo horretan izan ziren aurrerapenik urrienak; hain zuzen ere, 213 langile babesten zituzten bi enpresa-akordio baino ez ziren lortu. Ildo horretan, esan behar da Itunpeko Irakaskuntzaren hitzarmena argitaratzeke zegoela, eta Ikastolena 2020an erregistratu zela, 2019rako ondorioekin. Gainera, urtearen hasieran, arlo horrek zuen hitzarmen gutxien indarrean (% 17,9), eta, 2020aren amaieran, ia ez zen aldaketarik izan (% 18,4); hau da, 2019aren amaierako mailaren azpitik geratu zen datu hori. Edonola ere, eta ohar positibo gisa, adierazi behar da ez zegoela langile bakar bat ere hitzarmena iraungita zuenik.

EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokienez, egoerarik onenean zeuden 2020. urtearen hasieran, aztertutako beste eremu guztiekin alderatuta –langileen % 51,8k zuen bere hitzarmena eguneratuta–; gainera, ekitaldiaren amaieran, hitzarmenak eguneratuta zituzten langileen ehunekorik handiena zuen (% 66,4). Hala eta guztiz ere, ehuneko hori 2019aren amaierakoa baino ia 10 puntu txikiagoa zen 2020an –% 76,8koa izan baitzen 2019an–, eta hitzarmenak iraungita zituzten langileen ehunekoa % 0,6koa baino ez zen.

13. GRAFIKOA.
2020KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA EAE-N,
LURRALDE-EREMUAREN ARABERA



2020/01/01eko datuak

2020/12/31ko datuak

- Hitzarmen iraungia duten eta goragoko mailako beste esparru-hitzarmenen babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2020an hitzarmenak luzatuta eta berritzeke dituzten langileen ehunekoa
- Hitzarmenak indarrean (eguneratuta) dituzten langileen ehunekoa

2020an lortutako akordio nagusiak

Sektore-mailan, 2020an EAEn negoziatutako hiru hitzarmen baino ez ziren erregistratu (lehen aipatutako Bizkaiko eta Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoarenak eta Bizkaiko Kirolerako lokal eta zelaiena). Urte hartan, EAEn eragina duten estatu-mailako 19 sektore-hitzarmen erregistratu ziren.

Hala ere, aurreago adierazi bezala, industria siderometalurgikoaren hitzarmenen garrantzia kontuan hartuta, EAEn negoziatutako hiru akordio horiek 73.000 langile baino gehiago estaltzen zituzten, eta, 2020an EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenei dagokionez, 14.000 langile eskas babesten zituzten.

Azken horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira, euren garrantziagatik: Aurrezki Kutxa eta Finantza Erakundeena (4.000 langile), Publizitate Enpresena (2.000 langile) eta Zerga Teknikari eta Aholkulariena (1.600 pertsona baino gehiago).


III.4. NEGOTIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA, LURRALDE-EREMUAREN ARABERA

Negoiazio kolektiboaren bilakaera lurralde-eremuaren arabera aztertuta, enpresa-hitzarmenek babestutako langileen % 56,8k hitzarmena eguneratuta zuen 2020. urtearen amaieran; sektore-hitzarmenek babestutakoak % 54,9 izan ziren.

Aurreko urtearekin alderatuta, nabarmen hobetu zen sektore-hitzarmenek babestutako langileen egoera.

Enpresa-hitzarmenek estalitako langileen egoerari dagokionez, aurreko urtekoaren antzekoa zen egoera.

14. GRAFIKOA.
2020KO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN BILAKAERA, LURRALDE-
EREMUAREN ARABERA



- Hitza irauten duen eta goragoko eremuko beste hitza baten babesik ez duen langileen ehunekoa
- 2020an hitza irauten duen eta berritzeke dituzten langileen ehunekoa
- Hitza irauten duen indarrean (eguneratuta) dituzten langileen ehunekoa


Nahiz eta 2020an ere sektore-eremuan biltzen ziren hitza irauten duen langile gehienak, nabarmen txikitu zen haien kopurua aurreko urtearekin alderatuta. 2019an sektore-hitza irauten duen langileen % 19,8k hitza irauten zuen hitza irauten; 2020an, berriz, ehuneko hori % 12,8ra jaitsi zen.

Enpresako eremu funtzionalean hitza irauten duen langileak irauten duten pertsonen ehuneko txiki horrek bi arrazoi ditu: alde batetik, eremu horretako hitza irauten duen negoziazioan bizitasun handiagoa izan zelako, eta, bestetik, kasu gehienetan enpresa-hitza irauten duen langileei babesa emateko sektore-hitza irauten duen (probintziakoak edo estatukoak) zeudelako.

Negoiazio kolektiboaren bilakaera, eremu funtzionalen arabera, 2020 amaitzean

Laburpen gisa, EAEko negoziazio kolektiboaren egoera orokorra azalduko dugu.

2020a amaitzean, negoziazio kolektiboko akordioen eraginpeko langileen % 66,3 sektore-hitzarmenen –indarrean daudenak eta luzatuta daudenak– estaldurapean zegoen, eta % 23,9, berriz, enpresa-hitzarmenen –kasu horretan ere, indarrean daudenak eta luzatuta daudenak– babespean.




Enpresa-mailako negoziazioak eragin txikia izan zuen estaldura-mailan, indarrean zein luzatuta zeuden enpresa-hitzarmenek babestutako langileen ehunekoa ia ez baitzen aldatu.

Ekitaldia amaitzean, 2020an, sektore-hitzarmenen (indarrean zeudenak eta luzatutakoen) pisuak gora egin zuen aurreko urtearekin alderatuta, eta ez dago eremu-aldaketarik –sektorea vs. enpresa–; izan ere, sektore-hitzarmenek estalitako langileen kopuruaren gorakada iraungitako hitzarmenak berreskuratzearen ondorio izan zen batez ere (15. grafikoa).

III.5. 2020RAKO NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EMAITZAK

a) Soldata-igoerak

16. GRAFIKOA.
INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK.
ESTATUA⁴-EAE



Iturria: LHK eta Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan adostutako batez besteko soldata-igoera % 2koa izan zen 2019rako (EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak ere kontuan hartuta), Estatuko hitzarmen kolektiboetarako adostutako batez besteko ordainsari-igoera baino 16 ehunen txikiagoa, Estatuan % 2,33koa⁵ izan baitzen (16. grafikoa).


Oro har, eremu guztietan, Bizkaiko lurralde historikoan negoziatutako hitzarmenetan izan ezik, 2020ko soldata-igoerak aurreko urtekoak baino txikiagoak izan ziren.

EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen banakapena eginez gero, desberdintasunak ikusten dira: % 1,55 EAEn negoziatutakoetan, eta % 1,96 Estatuan negoziatutakoetan.

⁴ Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak ekitaldi bakoitzaren amaieran argitaratutako datuak. Ez dira osteko eguneratzeak kontuan hartu.

⁵ Estatu osorako adostutako soldata-igoera, Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioak 2020/01/31n emandako informazioaren arabera.

17. GRAFIKOA.
EAE. INDARREAN DAUDEN HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK.
ENPRESA ETA SEKTOREA



EAEn indarrean zeuden hitzarmenetako soldata-igoeren bilakaera eremu funtzionalaren –enpresa edo sektorea– arabera aztertuta, ikusiko dugu 2020an igoerak antzekoak izan zirela sektore-eremuan eta enpresa-eremuan (hurrenez hurren, % 1,70 eta % 1,66). 2018an eta 2019an, alderantziz gertatu zen: soldata-igoerak apur bat handiagoak izan ziren sektore-eremuan.

8. TAULA.
2019 ETA 2020 URTEETARAKO ADOSTUTAKO SOLDATA-IGOERAK

	SOLDATA-IGOERA	
	2019	2020
EAE GUZTIRA	% 2,00	% 1,69
- EAEn erregistratuak	% 1,74	% 1,55
Araba	% 1,81	% 1,71
Bizkaia	% 1,70	% 1,74
Gipuzkoa	% 1,62	% 1,13
Lurralde artekoak	% 2,30	% 1,96
- Estatu-mailakoak*	% 2,39	% 1,96

* EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetako igoera.

Erosteke ahalmenaren bilakaera baloratu ahal izateko, adierazi behar da 2020rako adostutako batez besteko soldata-igoera handiagoa izan zela 2020ko abenduko urtetik urterako inflazioa (-% 0,3) eta urteko batez besteko inflazioa (-% 1) baino. Kontuan hartu behar da pandemiak eragindako krisi ekonomikoaren ondoriozko ingurune ekonomikoan EAEko BPGd-a -% 9,5 txikitu dela.

Aipatu behar da soldatak KPIaren bilakaeraren arabera berrikusteko edo bermatzeko klausulek ez zutela eraginik izan batez besteko soldata-igoeran (% 1,69) 2020an. Hori azaltzeko, kontuan hartu behar da urtetik urterako inflazioa eta batez bestekoa negatiboak izan zirela EAEn eta Estatuan.

Ildo horretan, zenbait urtetik hona, gero eta ohikoagoa da berrikusteko klausulak enpresaren helburuak betetzearekin lotuta egotea –eta klausula horien ondorioak ezagutzea ezinezkoa da–, alde batetik, eta, beste batetik, urtean KPIak izan duen bilakaera erreferentzia bakartzat duten soldata bermatzeko klausulak gero eta gutxiago izatea.

Azkenik, 2020an EAEn erregistratutako hitzarmenen soldata-igoera soilik kontuan hartuz gero, igoera hori % 1,65ekoa izan zen, eta % 1,55ekoa, EAEn eragina duten estatu-mailakoak barne hartzen badira.

b) Lanaldia

2020rako indarrean zeuden eta lan-baldintzak eguneratuta zituzten hitzarmenetan adostutako batez besteko lanaldia 1.708 ordukoa izan zen EAE osorako. Alde handiak egon ziren EAEn erregistratutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen artean: hurrenez hurren, 1.693 ordukoa eta 1.739 ordukoa.

9. TAULA.
INDARREKO HITZARMENAK. 2020RAKO ADOSTUTAKO BATEZ-BESTEKO LANALDIA

	EAEn negoziatuak (1)	EAEn aplikagarriak (2)	ESTATUKO hitzarmen guztien batezbestekoa (3)
- Hitzarmen guztiak	1.693	1.708	1.753
Lehen sektorea	--	1.768	1.730
Industria	1.698	1.701	1.752
Eraikuntza	1.702	1.703	1.737
Zerbitzuak	1.685	1.714	1.759

(1) EAEn negoziatutako eta indarrean dauden hitzarmenak.

(2) EAEn negoziatutako indarreko hitzarmenak gehi Estatuan indarrean daudenak eta EAEn eragina dutenak.

(3) Estatuan indarrean dauden hitzarmen guztien batezbestekoa.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa eta LHK.

2020an aurreko urtekoa baino lanaldi laburragoa zuten hitzarmenen proportzioa apur bat handitu zen, aurreko urteetan indarrean zeuden hitzarmenekin alderatzen baditugu. Beraz, 2020an lanaldia murriztu zuten hitzarmenak guztien % 12,7 izan ziren; 2019an, % 11,4 izan ziren, 2018an, % 8,5, eta, 2017an, % 5,6. EAEn erregistratutako hitzarmenak soilik hartzen baditugu kontuan, ehuneko hori zertxobait handiagoa izan zen: % 14,9. Hortaz, egiazta daiteke lanaldi-murrizketa dela negoziazio kolektiboetan berreskuratzen ari den aldarrikapen bat.

Era berean, lanaldi-murrizketa horren batezbestekoa (-0,66 ordu) txikiagoa izan zen aurreko urtekoa baino; izan ere, 2019an, murrizketa 1,69 ordukoa izan zen, batez beste; 2018an, 1,44 ordukoa izan zen, eta 2017an, 21 minutukoa (0,35 ordu urtean).

Aurreko urtean bezala, EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan lanaldi-murrizketa handiagoa izan zen EAEn negoziatutakoetan baino: -0,92 ordukoa estatu-mailakoetan, eta -0,13 ordukoa EAEn negoziatutako hitzarmenetan.

9. taulan, 2020rako jarduera-sektore bakoitzean adostutako batez besteko lanaldiak ageri dira. EAEn negoziatutako hitzarmenak, EAEn aplikagarri zirenak eta Estatuko hitzarmen guztien batezbestekoa ikus daitezke.

Oro har, EAEn aplikagarri diren hitzarmenetan adostutako lanaldiak laburragoak dira Estatu osorako adostutakoak baino (hurrenez hurren, 1.708 ordu eta 1.753 ordu).

EAEn negoziatutako hitzarmenak soilik kontuan hartuta (EAEn eragina duten estatu-esparrukoak alde batera utzita), batez besteko lanaldia pixka bat gehiago laburtu zen: 1.693 ordukoa izan zen.

Jarduera-sektorearen arabera aztertuz gero, zenbait alde esanguratsu aurkituko ditugu. Lehen sektorean, indarrean zeuden hitzarmen guztiak EAetik kanpo negoziatu ziren, eta, haietan, lanaldiak handiagoak izan ziren Estatu osorako adostutakoak baino; industrian, eraikuntzan eta zerbitzuetan, berriz, nabarmen txikiagoak izan ziren.

EAEn aplikagarri diren hitzarmenetan, jarduera-sektore hauek izan zituzten lanaldirik txikienak: industriak (1.701 ordu), eraikuntzak (1.703 ordu) eta zerbitzu-sektoreak (1.714 ordu). Lehen sektoreko lanaldia nabarmen handiagoa izan zen (1.768 ordu). EAEn aplikatzeakoak diren hitzarmenetan adostutako lanaldia luzatu izana honen ondorio da batez ere: zerbitzu-sektoreko estatu-mailako hitzarmenen lanaldien baturaren ondorio.

c) Lanaren eta familiaren kontziliazioa

EAEn 2020an indarrean zeuden hitzarmen guztien (311 hitzarmen) % 47,2k zituen lanaren eta familiaren kontziliazio-neurriak.

Hitzarmen gehienek edoskitze-eskubidea lanaldi osotan metatzearekin lotutako neurriak jasotzen zituzten, baita familia-egoera eta egoera pertsonaletarako zenbait baimen ordaindu ere, indarreko legeetan ezarritakoa hobetzen zutenak.

Indarrean zeuden enpresa-hitzarmen guztietatik, % 47,5ek kontziliazio-neurriak jasotzen zituzten; sektore-hitzarmenetan, berriz, ehuneko hori % 45,4koa izan zen.

2019an indarrean zeuden hitzarmenei dagokienez, halako neurriak jasotzen zituzten sektore-hitzarmenen kopuruak gora egin zuen (% 34, 2019an). Ehuneko horiek urte jakin batean eguneratuta edo luzapen-egoeran dauden hitzarmenen kopuruaren arabera alda daitezke, baina badirudi horrelako gaiak gero eta gehiago hartzen direla kontuan sektore-hitzarmenetan.

Enpresa-hitzarmenei dagokienez, portzentajeak gora egin zuen aurreko urtearekin alderatuta (% 45,2 2019an), baina askoz neurri txikiagoan.

Lurralde-eremuaren arabera, EAEn negoziatutako hitzarmenen % 41,9k arautzen zituen horrelako neurriak. EAEn eragina duten eta Estatuan negoziatu zirenen kasuan, berriz, % 59,7 ziren. Kasu horretan, tamaina handiko enpresen hitzarmenak ziren, edo estatu-mailako sektoreko hitzarmenak, langile-kopuru handia babesten zutenak.


III.6. HITZARMEN KOLEKTIBOEN INAPLIKAZIOAK EAE-N

2020an aurreko urtean baino inaplikazio gehiago izan ziren, eta inaplikazio horiek eragindako langile gehiago ere bai; izan ere, azken urteetan eragindako langileen kopururik txikiena 2019an erregistratu zen.

2020an 16 inaplikazio aurkeztu ziren EAEn, eta aurreko urtean 9 izan ziren; aldiz, eragindako langileen kopuruak gora egin zuen: 55 izan ziren 2019an, eta 199, 2020an.

Dena den, adierazi behar da inaplikazioen eta haiek eragindako langileen kopuruak oso txikiak izan zirela orduan ere, kontuan hartuta 545.000 langilek baino gehiagok zituztela hitzarmenak indarrean (erabateko indarraldian eta aurreraeraginean).

EAEko Lan Agintaritzan 2020an gordailuratutako inaplikazio guztietatik, 16tan hala jokatzeko erabakia hitzartu zuten bi aldeek kontsultaldian, eta, beste bitan, hitzarmenaren batzorde paritarioan hartu zen erabakia.



Era berean, adierazi beharra dago, 2017an, 2018an eta 2019an bezala, 2020an ere hitzarmena ez aplikatzeko eskaera bakar bat ere ez zela iritsi Estatutuaren arabeko Hitzarmen Kolektiboak Ez Aplikatzeko Prozedurak Ebazteko Organora (ORPRICCE).

Sektorearen arabera, hau adierazi behar da: industria-sektoreko enpresek zortzi inaplikazio aurkeztu zituzten, eta horiek 121 langileri eragin zieten; zerbitzu-sektoreko enpresek zazpi inaplikazio aurkeztu zituzten, eta 67 pertsonari eragin zieten; eta eraikuntza-sektoreko enpresa batek inaplikazio bat aurkeztu zuen, eta horrek 11 pertsonari eragin zien.

Estatu osoari dagokionez, 2020an 566 inaplikazio aurkeztu ziren; hain zuzen, 22.301 langile zeuden haien eraginpean. Horrenbestez, -% 45,8 txikitu zen inaplikazioen kopurua, aurreko urtekoaren aldean; eragindako langileen kopurua ere txikitu zen, hain zuzen, % 8,9.

566 inaplikazio horien % 95,6tan (541 inaplikaziotan), akordioa lortu zen kontsultaldian. 18 inaplikaziotan (% 3,2tan), hitzarmenaren batzorde paritarioan lortu zen akordioa. Hirutan (% 0,5etan), gatazkak konpontzeko borondatezko sistemaren –PRECOaren antzekoa da– bitartekotzari esker lortu zen, eta bitan (% 0,4tan), berriz, organo horren laudo baten bidez. Beste bi kasutan (% 0,4tan), hiru alderdiko organo batek hartu zuen erabakia.

Aurreko urteetan bezala, 2020an ere, inaplikazioen % 61,5 zerbitzu-sektorean gertatu zen nagusiki; eraikuntza-sektorea izan zen hurrena, inaplikazioen % 19,6rekin, eta, ondoren, industria (% 14,1) eta lehen sektorea (inaplikazioen % 4,8).

EAEn hitzarmenak ez aplikatzeko gaiei dagokienez, soldataren zenbatekoa izan zen 16 inaplikazioen zortziren gai bakarra. Gainerako inaplikazioetan, zenbait gai izan ziren nagusi. Honako hauek izan ziren: ordainsari-sistema, soldata, lanaldia, ordutegia eta lan-denboraren banaketa.

Estatuan, aplikatu ez ziren lan-baldintzak soldaten zenbatekoarekin eta ordainsari-sistemarekin lotutakoak izan ziren; bakarrik edo beste gai batzuekin batera, inaplikazio guztien % 69,3 izan ziren.

Adierazi beharra dago, bestalde, EAEn aurkeztu ziren inaplikazio guztietatik zortzi aurkeztu zirela Gipuzkoako Lan Agintaritzaren aurrean, zazpi Bizkaian, eta bat Arabako Lurralde Historikoan.

Azkenik eta laburpen gisa, azpimarratzekoa da inaplikazioek eragindako pertsonen kopurua oso txikia izan zela eta, gehienetan, prozedura kontsultaldian amaitu zela, aldean akordioaren bidez. Hau da, hiru alderdiko organoak oso gutxitan hartzen du esku.

III.7. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2021AREN HASIERAN

2021. urtearen hasieran, hitzarmen ugari zeuden berritzeke.

Urtarrilaren 1ean, 975 hitzarmen –hitzarmen guztien % 71,3– luzapen-egoeran zeuden. Hau da, 2021. urtearen hasieran langileen % 62,9k (380.240 pertsona) luzatuta eta berritzeko zain zituen hitzarmenak; langileen % 47,4 ziren 2020aren hasieran.

2021ean, 352 hitzarmen daude indarraldian (hainbat urtetarako indarraldiarekin), eta 164.846 langile babesten dituzte, guztien % 27,2. 2021aren hasieran 59.898 langilek zituzten euren hitzarmenak iraungita; hots, langileen % 9,9k. 2020aren hasieran, ehuneko horiek % 37,3 eta % 15,3 ziren, hurrenez hurren.

Negoiazio-eremu guztietan, Gipuzkoako lurralde historikoan negoziatutako hitzarmenetan izan ezik, 2021. urtearen hasieran berritutako hitzarmenen ehunekoa txikiagoa zen 2020aren hasierakoa baino. Nabarmentzekoak dira EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenak, hitzarmenak berrituta zituzten langileen ehunekoa % 22,6koa baino ez baita, kontuan hartuta aurreko urtean % 51,8koa zela. Bestalde, Arabako Lurralde Historikoan, langileen % 13,3k zuen hitzarmena berrituta, eta, aurreko urtean, berriz, % 38,9k.


Lurralde arteko eremuan, nahiz eta hitzarmenak luzatuta eta berritzeke zituzten langileen ehunekoa % 85,2koa izan, aurreko urtearekiko aldea portzentajezko hiru puntukoa baino ez zen; izan ere, eremu horretan, 2020aren hasieran langileen % 82,1ek zuen hitzarmena luzapen-egoeran.

Bizkaian, langileen % 29,8k indarrean zituen akordioak; 2020an, berriz, % 40,3koa zen ehuneko hori.

EAEko sektore-negoiazioari dagokionez, luzatutako eta berritu gabeko hitzarmenak zituzten langileen ehunekoa (% 51,8) aurreko urtekoa (% 44,2) baino handiagoa zen, aurrerapen handiak lortu baziren ere.

Hitzarmenak iraungita zituzten langileei (% 9,9ri) dagokienez, esan behar da 2020. urtearen hasierakoa (% 15,3) baino portzentajezko 10 puntu txikiagoa zela.

19. GRAFIKOA.
NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGOERA 2021AREN HASIERAN




- 2021ean hitzarmen iraungia duten eta goragoko mailako beste esparru-hitzarmenen babesik ez duten langileen ehunekoa
- 2021ean hitzarmenak luzatuta eta berritzeke dituzten langileen ehunekoa
- 2021ean hitzarmenak indarrean dituzten langileen ehunekoa

LAN-GATAZKAK ETA ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

III.8. GREBAK

2020an zehar, COVID-19ak geldialdi handia eragin zuen jarduera ekonomikoan. Horren ondorioz, nabarmen murriztu zen greba-kopurua, bai eta, beraz, gatazka horiek eragindako langileen eta lan egin gabeko egunen kopurua ere.



2020ko eta 2019ko (urtarriletik azarora bitarteko) datuak alderatuta ikus daitekeenez, txikitu egin ziren greba-kopurua, eragindako langileen zenbatekoa eta lan egin gabeko egunak: hurrenez hurren, -% 37,7, -% 70,3 eta -% 86,6. Hala ere, aurreko urtean lan egin gabeko egunen kopuru handiaren arrazoia hartu behar dugu kontuan: urte hartan izandako zenbait gatazka sektorial, batik bat. Hauek dira gatazkoak: EAEko Gizarte Ekimeneko Irakaskuntza Zentroena, Bizkaiko Bulegoa eta Bizkaiko Industria Siderometalurgikoarena.

Aurreko urteetan bezala, greba gehienak negoziazio kolektiboko prozesuetatik eratorritako gatazken ondorio izan ziren; hain zuzen, gatazka horiek greben % 76,6, eragindako langileen % 82,3 eta galdutako lanegunen % 78 eragin zuten.

III.9. PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKAK

Lan Harremanen Kontseiluak Preco akordioa (Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa) kudeatzen du bere hiru lurralde-zerbitzuen bitartez. 2000ko otsailaren 16an, Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkariarik handieneko sindikatu- eta enpresa-konfederazio guztiek sinatu zuten akordio hori (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa).

2020an, 590 eskaera aurkeztu ziren Precon, eta 230.501 langile izan ziren guztira haien eraginpean. Hau da, aurreko urtean baino % 27,2 eskaera gehiago aurkeztu ziren, eta % 95,4 langile gehiago izan ziren haien eraginpean.


Aurreko urteekin alderatuta, aurkeztutako eskaeren tipologia aldatu egin zen, COVID-19aren ondorioz. Hala, hainbat gatazka sortu ziren honako arrazoi hauek direla eta: pertsonen babes- eta segurtasun-neurriak, ordaindutako baimena berreskuratzea, ABEEE-en baldintzak eta garapena, krisiak lan-egutegietan eta lan-ordutegietan izandako inpaktua, eta alarma-egoeraren indarraldian onartutako araudi espezifikoak.

Enpresa-prozeduretan, gatazka horien batez besteko tamaina handitu egin zen, baina aipatzekoa da eraginpeko langileen kopurua nabarmen handitu zela, honako hauen ondorioz gehienbat: alde batetik, sektore publikoan aurkeztutako hainbat prozeduraren ondorioz, eta, beste batetik, Bizkaian metalaren sektorean aurkeztutako arbitraje-eskaera baten ondorioz (ia 50.000 pertsonari eragin zien).

Orobat, azpimarratu behar dugu pandemiaren ondorioz martxoan, apirilean, maiatzean eta ekainean LHKren bulegoak ez direla jendearentzat irekita egon, eta, hortaz, ezin izan da aurrez aurreko topaketarik egin; topaketak birtualak izan dira, plataforma telematikoen bidezkoak. Gainera, ezarritako edukiera-murrizketak direla eta, bigarren seihilekoan adiskidetze-topaketak telematikoki, aurrez aurre eta modu mistoan egin ziren.

Elkarrizketa telematikoaren modalitate berri horri esker, negoziazio-prozesu eraginkorrak eta benetakoak egin daitezke. Izan ere, akordioak lortzea ahalbidetzen dute, gatazkaren baldintzek eta alderdien borondateak horretarako aukera ematen dutenean, nahiz eta jakin topaketa birtualak mugak eta zailtasunak dituela aurrez aurreko topaketa- eta harreman-modalitateekin alderatuta.

21. GRAFIKOA.
PRECO-N AURKEZTUTAKO GATAZKEN ETA ERAGINDAKO LANGILEEN KOPURUA



Iturria: Lan eta Enplegu Saila. Eusko Jaurlaritza.

2020an amaitutako gatazkei dagokienez, adostasunen ehunekoa gatazken % 18,7koa izan zen (% 26,1ekoa 2019an). Adostasunen ehunekoa handiagoa izan zen Gipuzkoan (% 29,1); Bizkaian, berriz, 2020an amaitutako gatazka guztien % 15,7koa izan zen adostasuna, eta Araban, azkenik, % 18,1ekoa.

Aipatu behar da, aurreko urtean bezala, alderdiek gatazka kolektibo gutxi jarri zutela Lan Harremanen Kontseiluaren elkargoko profesionalen esku-hartzearekin adiskidetze-, bitartekaritza- edo arbitraje-prozeduren mende; izan ere, amaitutako gatazken % 5,3tan soilik jo zen esku-hartze horietara.


Hala, 2020an, 19 gatazka jarri ziren adiskidetze-prozeduraren pean. Haietako 14 afiliazio sindikala egiaztatzeko prozedura bereziari buruzkoak izan ziren. Bestalde, zazpi bitartekaritza-prozedura abiarazi ziren, bai eta hiru arbitraje-prozedura ere.

Beraz, 29 prozedura gauzatu ziren guztira, eta, 2019an, 44 prozedura abiarazi ziren profesionalen esku-hartzearekin.

III.10. ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK

Martxoaren 5etik abenduaren 31ra bitartean, enplegu-erregulazioko 31.554 espediente aurkeztu ziren EAEn, eta espediente horiek 218.991 langileri eragin zieten.

Langile horietako gehienei (% 99ri) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea (ABEEE) egin zitzaien; 2.154 langileri (% 1i) bakarrik egin zitzaien lan-harremana azkentzeko espedientea.



Epealdi horretan aurkeztutako 31.554 ABEEE-etatik, 28.253 (% 89,5) ezinbestekoak izan ziren, eta 154.476 langileri eragin zieten. Gainerako ABEEE-ek arrazoi teknologikoak (teknikoak, antolakuntzakoak edo produkziokoak) edo ekonomikoak izan zituzten.

Hilabete horietan, eragindakoen kopurua aurreko krisietakoa baino askoz handiagoa izan zen; izan ere, 2009 osokoa (68.722 pertsonakoa) baino ia hiru aldiz handiagoa izan zen, eta 1993koa (86.166 pertsonakoa) halako bi baino gehiago.

COVID-19ak eragindako krisiaren intentsitate handiagoa izan da horren arrazoi nagusia, eta enpresa gehienek barne-malgutasuneko neurri hori (ABEEEak) erabili izana, krisiaren ondorioei aurre egiteko. Izan ere, EAeko sektore pribatuko soldatapekoen herenak, gutxi gorabehera, enplegu-erregulazioko espediente baten eraginpean egon ziren hilabete horietan.

23. GRAFIKOA.
ENPLEGU-ERREGULAZIOKO ESPEDIENTEAK EAE-N ETA ERAGINDAKO
PERTSONAK



*2020an, martxoaren 5etik abenduaren 31ra bitartean eragindako pertsonak. Behin-behineko datuak.

Iturria: Open data. Eusko Jaurlaritza. 2021/01/14an argitaratutako datuak.

Aldi horretan izapidetutako espedienterik gehienak (guztizkoaren % 85,4) 10 langilera arteko enpresek egin zituzten; baina, kaltetuen kopurua kontuan hartzen badugu, enpresa txiki horietako langileak (78.756) enplegu-erregulazio espedienteek eragindako langile guztien % 36 baino ez dira izan.


Bigarren tokian, 11 eta 50 langile bitarteko enpresak daude: espedienteen % 12,6 egin zuten, eta eragindako pertsonen % 31,8 hartu zuten barne. Enpresarik handienek (50 langile baino dituztenek) espediente guztien % 2,1 egin zituzten, eta langileen % 32,2ri eragin zioten.

EAEn hilero ABEEEn⁶ egon diren langileen kopuruari dagokionez, apirileko eta maiatzeko balioak dira altuenak: 137.995 eta 139.111 langile, hurrenez hurren. Maiatzetik aurrera, pixkanaka behera egiten hasi zen datu hori, eta urrian erregistratu zen baliorik baxuena (22.442 pertsona).

Hala ere, azaroan aldi baterako enplegu-erregulazioan zeuden pertsonen kopuruak gora egin zuen berriro, eta, abenduan, 43.345 langile zeuden egoera horretan.

⁶ Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioko Komunikazio Kabineteak argitaratutako datuak. Apirilean, hilabete amaierako datuak. Beste hilabeteetan, hileko batezbestekoa.

24. GRAFIKOA.
ABEEEE-EK ERAGINDAKO LANGILEAK, HILAREN ARABERA (HILEKO BATEZBESTEKOAK)



Apirilean, hilabete amaierako datuak. Beste hilabeteetan, hileko batezbestekoa.

Iturria: Lan eta Ekonomia Sozialeko Ministerioa.

EINen estatistika esperimentalak. Enpresen egoera demografikoa

ABEEEE batek eragindako pertsonei buruzko informazio osagarri gisa, Enpresen Egoera Demografikoari buruzko Estatistika Esperimentaleko datuak gehitu ditugu. EINek argitaratu du estatistika hori, eta, horretan, ABEEEE-en eraginpean zeuden enpresen –legezko unitate enplegu-emaileak– kopuruari buruzko informazioa ematen da, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoan sortu diren, iraun duten, berraktibatu diren eta desagertu diren enpresei buruzkoa ere.

Aztertutako aldiak 2020ko lehen hiru hiruhilekoak hartzen ditu; hau da, 2020ko urtarrilaren 1etik urriaren 1era bitarteko aldia.

Azterketa horretan ez dira sartzen nekazaritza-, abeltzaintza- eta arrantza-jarduerak, administrazio publikoetako administrazio-zerbitzuak, etxeko langileak dituzten familien jarduerak eta lurraldez kanpoko erakundeak.

Euren kargura langilerik ez duten langile autonomoak ere ez dira sartzen.

Informazio horren arabera, legezko unitate enplegu-emaileen (enpresa enplegu-emaileen) kopurua txikitu egin zen EAEn 2020. urtearen hasieratik hirugarren hiruhilekoaren amaierara, 53.710etik 51.957ra; hain zuzen, % 3,3 gutxiago.

10. TAULA.
EIN. ENPRESEN EGOERA DEMOGRAFIKOARI BURUZKO ESTATISTIKA ESPERIMENTALA
LEGEZKO UNITATE ENPLEGU-EMAILEN BILAKAERA.

	Altak (1)	Bajak (2)	Berraktibatzeak (3)	GUZTIRA (5) (5) aurreko urtea +(1)- (2)+(3)
Egoera 2020/01/01ean				53.710
Egoera I. hiruhilekoaren amaieran	1.935	3.962		51.683
Egoera II. hiruhilekoaren amaieran	1.205	1.771	724	51.841
Egoera III. hiruhilekoaren amaieran	1.686	1.947	377	51.957

	IRAUTEAK Altan iraun dute aurreko hiruhilekotik (4)		Altak (1)		Berraktibatzeak (3)		GUZTIRA (4)+(1)+(3)		GUZTIRA
	ABEEE gabe	ABEEE batekin	ABEEE gabe	ABEEE batekin	ABEEE gabe	ABEEE batekin	ABEEE gabe	ABEEE batekin	
Egoera 2020/01/01ean							53.710		53.710
Egoera I. hiruhilekoaren amaieran	37.774	11.974	1.522	413			39.296	12.387	51.683
Egoera II. hiruhilekoaren amaieran	41.981	7.931	1.205		718	6	43.904	7.937	51.841
Egoera III. hiruhilekoaren amaieran	41.251	8.643	1.684	2	364	13	43.299	8.658	51.957

Iturria: EIN

-Altak: Hiruhilekoaren hasieran enplegurik ez zuten, langileak kontratatu dituzten eta hiruhilekoaren amaieran enplegua izaten jarraitzen duten legezko unitate enplegu-emaileen multzoa.

-Bajak: Hiruhilekoaren hasieran enplegua zuten baina hiruhileko horretan zehar galdu duten legezko unitate-enplegu-emaileak.

-Berraktibatzeak: Aurreko hiruhilekoaren hasieran soldatapekoak zituzten unitateak baina uneko hiruhilekoaren hasieran soldatapekorik ez zutenak eta hiruhileko horretan zehar langileak kontratatu dituztenak, eta hiruhilekoaren amaieran enplegua izaten jarraitzen dutenak.

-Irauteak: Hiruhilekoaren hasieran eta amaieran enplegua duten legezko unitate enplegu-emaileak.

Datu positibo gisa, enpresa enplegu-emaile horien % 16,6k langileren bat zuen hirugarren hiruhilekoaren amaieran, aztertutako hiru hiruhilekoetako ehunekorik txikiena; izan ere, lehen hiruhilekoaren amaieran ehuneko hori % 31,7koa zen, eta, bigarren hiruhilekoaren amaieran, berriz, % 18,9koa.

2020. urtearen hasieran zeuden 53.710 legezko unitate enplegu-emaileen egoera aztertzen badugu, alta berriak kontuan hartu gabe, % 12,6k baja hartu zuen 2020ko urriaren 1ean; hau da, enplegua izateari utzi zion.

Iraupen-tasarik txikiena (% 83,82) enpresarik txikienean (1 eta 5 langile bitartekoek) izan zuten; enpresarik handienek, berriz, % 98,46ko iraupen-tasa izan zuten.

11. TAULA
LEGEZKO UNITATE ENPLEGU-EMAELEN BILAKAERA URTARRILAREN 1EAN

	2020ko urtarrilaren leko multzoa	Hirugarren hiruhilekoko irauteak (2020ko urriaren 1ean)	
	Kopurua	Kopurua	%
Guztira	53.710	46.921	87,36
1-5	38.159	31.983	83,82
6-9	5.864	5.521	94,15
10-99	8.880	8.625	97,13
100-249	548	537	97,99
250 eta gehiago	259	255	98,46

Iturria: EIN

IV. ONDORIOAK

Kontratazioa, afiliazioa eta langabezia

COVID-19ak ekarritako osasun-krisiak eragin handia izan du jarduera ekonomikoan eta lan-merkatuan.

2020an, EAEn sinatutako kontratuen kopurua -% 30,2 jaitsi zen aurreko urtearekin alderatuta, eta Gizarte Segurantzako afiliatuen kopurua -% 2,2 txikitu zen abenduan, urtetik urterako datuak kontuan hartuta; alegia, 21.460 pertsona gutxiago zeuden afiliatuta (hileko batezbestekoa).

Atzerakada horren arrazoi nagusia Araubide Orokorak 19.286 afiliatu galdu izana da (-% 2,5). Langile Autonomoen Araubide Bereziko afiliazioak aurreko lau urteetako beheranzko joerari eutsi zion 2020an, eta % 0,7 txikitu zen; hau da, urtetik urterako terminoetan, 2019ko abenduan (-% 0,9) baino bi hamarren gutxiago.

Afiliatuen galera ertain horren arrazoietakoa bat, jakinarazitako kontratazioaren beherakadekin alderatuz gero, ABEEE-en estaldura handia izan zen; izan ere, horri esker, espediente horiek eragindako langileek Gizarte Segurantzari jarraitu zuten alta emanda.

EAEko ia 219.000 langilek izan zuten uneren batean enplegu-erregulazioko espediente bat 2020an. Langile horietako gehienei (% 99ri) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedientea (ABEEE) egin zitzaizen; 2.154 langileri (% 1i) bakarrik egin zitzaizen lan-harremana azkentzeko espedientea.

2020ko IV. hiru hilekoko langabezia-tasa % 11,2koa izan zen; hau da, 2019ko IV. hiru hilekoko (% 9,5) baino 1,7 puntu handiagoa.

Negoiazio kolektiboa

Negoiazio kolektiboari dagokionez, langileen % 55,4k eguneratuta zuen hitzarmena urtearen amaieran. Gipuzkoako Industria Siderometalurgikoaren hitzarmena berritzeko lortutako akordioari esker –iraungita zegoen–, ekitaldia amaitzean hitzarmenak iraungita zituzten eta estaldurarik gabe zeuden langileen ehunekoa % 9,8koa zen EAEn; ehunekorik txikiena izan zen lan-erreforma 2013an indarrean sartu zenetik.

Orobat, azpimarratu behar da negoziazio kolektiboko gure esparruak berreskuratzeko joera positiboa sendotu zela. Aurreko urtearekin alderatuta, EAEn negoziatutako eta indarrean zeuden hitzarmenek babesten zituzten langileen ehunekoa handitu egin zen.

Edukiak

EAEn indarrean zeuden hitzarmenetan –eta EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan– 2020rako batez beste adostutako soldata-igoera % 1,69koa izan zen. Ez dago aldaketa handirik sektore-hitzarmenetan eta enpresa-hitzarmenetan adostutako igoeren (hurrenez hurren, % 1,70 eta % 1,66) artean.

Dena den, EAEn negoziatutako hitzarmenen eta EAEn eragina duten estatu-mailakoen banakapena eginez gero, desberdintasunak ikusten dira: % 1,55 EAEn negoziatutakoetan, eta % 1,96 Estatuan negoziatutakoetan.

Soldatak KPIaren bilakaeraren arabera berrikusteko edo bermatzeko klausulek ez zuten eraginik izan batez besteko soldata-igoeran 2020an. Hori azaltzeko, kontuan hartu behar da urtetik urterako inflazioa eta batez bestekoa negatiboak izan zirela EAEn eta Estatuan.

2020an aurreko urtean baino lanaldi laburragoa barne hartzen zuten hitzarmenen ehunekoa handitu egin zen. Hortaz, egiaztatzen da lanaldi-murrizketa dela negoziazio kolektiboetan berreskuratzen ari den aldarrikapen bat.

2021. urtearen hasieran, hitzarmen ugari zeuden luzapen-egoeran, berritzeke.

Lan-gatazkak

2020an, jarduera ekonomikoaren geldialdi handia dela eta, greben ondoriozko gatazkek behera egin zuten nabarmen; hala ere, esan behar da 2019an ekitaldian izandako hainbat sektore-gatazkak eragin zutela lan egin gabeko egun-kopuru handia.